

Bi laneko heriotza azken bi egunetan

Lehenengoa atzo izan zen, ekainaren 30ean, Luiaondon. Furgoneta bateko gidaria trafiko-istripu batean hil zen, antza denez Portugaleteko azoka txikian salmentalanak egin ondoren etxera itzultzen ari zela. Eta bigarrena gaur bertan Zornotzako Aludium (garai bateko Alcoan). Makineria mantenuan ari zen azpikontrata bateko langile batek bizia galdu du makina gainera erori zaionean. Azken bi hauekin, gutxienez 42 dira urte hasieratik Euskal Herrian hildako langileak. Lehenik eta behin LAB sindikatutik gure elkartasuna eta babesela helarazi nahi diegu hildakoen senide eta lankideei.

Gaur gertatutakoa ez da berria, urtero ditugu honelako lan istripuak. Azpikontratako langileak hil egiten dira lan baldintza kaskarreatatik. Ez dago aitzakiarik hiru lanegunetik behin langile bat hiltzeko. Argi daukagu lan istripuak ez direla zoriak edo kasualitateak sortuak, ematen diren lan harremanen, prekarizazioaren, lan arautegiaren eta azpikontratazioaren emaitza dira.

Langileok bizi ahal izateko egiten dugu lan eta ez saiakera horretan bizia galtzeko. Lan istripuak ez dira bizitzako gertakari arruntak. Langile bat hiltzea ez da lanaren ezaugarri bat. Ez, lan istripuak patronalak lan egiteko orduan ezartzen dizkigun baldintza eta lan egiteko moduen emaitza dira.

LAB sindikatutik argi dugu, bizi eta lan duinak behar ditugu, lanetik onik eta bizirik bueltatzeko eskubidea dugu. Norbanakoena, familia eta gizarte osoarena den lakra honekin bukatzeko bide bakarra borroka eta antolakuntza dira. Lan harremanen eta joku arauen aldaketa batetik etorriko da aldaketa. Eredu berri bat gauzatu behar dugu, langileon bizitza eta osasuna lehenetsiko dituen ekonomia- eta ekoizpen-irizpideen gainera.

Horretarako, lanean jarraituko dugu lan-istripu hauei eta guztiei erantzuteko, kontzientziazioa eta mobilizazioa baitira bide bakarra.

Euskal Herrian, 2022ko uztailaren 1ean